

A woman with brown hair tied back, wearing a red long-sleeved shirt and dark safety glasses, is focused on her work at a lathe machine. She is looking intently at the metal piece being machined. The machine is dark grey and has a large amount of metal shavings on its bed. In the background, there is a large industrial hall with other people and equipment, suggesting a trade show or exhibition environment.

**[ b ]**

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

617. zkia.  
XV. urtea  
2007ko ekainaren 8a

# Emakumeak industriara hurbildu nahian

# Opel Corsa OPC berria 192 ZP.

Zure denbora baino 7,2 segundu lehenago.



Beste guztiak baino azkarrago joateko diseinaturia. Opel Corsa berriak bere 192 ZP-rekin eta motor berriarekin. Recaro eserlekuak, 17 pulgadako lantak, kirol diseinuzko barrualdea, dotitasunezko txasis-a. Opel Corsa berriak zentzu guztietatik begiratuta, idria onerekin egindako outoa da, errepidean edonari aurreratzena.

Etor zaitez OPC gama berria ezagutzera Opel-en zure bulegoan eta informatu zaitez nola lortu dezakezun zure **CMON!**

Pure Passion

**OPC**

Opel Performance Center

SMAC

## Giauto

salmentak: 902 345 123  
tailerra: 902 345 125

[www.giauto.es](http://www.giauto.es)  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

ELGOIBAR  
Olaso 25  
EIBAR  
Otaola 27

ANOETA-TOLOSA  
Benta-Aldea Ind. 3  
ARRASATE  
San Andres 10D

BERGARA  
Olabarrena  
OLABERRIA  
Karobi Ind.



**Etxean edo oporretara joanda ere  
Tempur-en produktuetaz goza ezazu.**

Ekainean, \*Tempur-ek Delux edo Signature koltxoia erosten opari hauteko bat jasoko duzu:

Buruko lepokoa



edo

"3 x 1"  
burukoa



\*2 unitate 135 zm-ko koltxoia edo haundiagoa erostean.



Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.

## LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



AITZOL GARMENDIA

Zerutik idazten dinat gaurkoan, Sare. Lasai, ez arima garbien paradisutik. Orri hauetan botatakoen ostean, bertan sartuko banaun absoluzio bila hasi beharko dinat haren eskusiba dutenen artean.

Hegazkin honetako 19F eserlekutik kanpora begira ari naun. Zoragarria benetan hegan egite hau. Kilometro batzuk beharago horra hor soro horiskak berdegune zabalak partxeatzen, asfaltozko zainak hormigoi eta kristalezko kapilareen artean gurgildun zelulatoxoak bideratzen, ur-ispiluak han eta hemen.

Azkar goazan. Errez. Inondik inora ere ez eserleku honetara ailegatzeko egin duan bidearen antzik. Pazientiz aberats etorri behar dun bat aireportura gaur egun. Mundua beldurrak jota zagon oso, Sare. Kontrol bat bestearen atzetik. Likidoak, pasaporteak, metala. Sospetxosoa edonor. Lehendik ere Euskaldunok kontroletara "Travel"-a puntuz gainezka ekartzen dinagu. Arnasa sakon hartu eta aurrera.

Egia esan lanpostuak sortzeko behintzat balio izango zinan paranoia guzti honen. Dozena erdi bat lerro bakoitzean eta katxeoko postu bakoitzean duplikaturik gainera.

Hala ere, leku batzutan sikiera kontroletako arduradunek irifarrez ta lasai bideratzen ditzen jendea. Han espainiarren malaletxe plusa ez zieten ordainduko. Alderantziz agian?

## ZOZOAK BELEARI...



SARE GURRUTXAGA

«Aireportura  
pazientiz aberats  
etorri behar dun  
gaur egun»

AITZOL

«Lanak  
gainezka egiten  
digunean  
gureak egin dik»

SARE

Malaletxe plusa edonoren nominan sartuta dagoela iruditzen zaidak gaur egun. Estu bizi gaituk antza denez, eta estuasunaren aurrean errazagoa duk zaunka kopeta zimurtzea, irribarre bat aireratzeta baino.

Aurrekoan, urrutira joan gabe, Bilboko kanpo-osasun zentrora joan ninduan. Bertan kanpora joateko hartu beharreko bakunen berri ematen ditek, besteak beste. Sardu bezain pronto, nabaritu nian nire bisitak ez ziala estimu handirik izango. Estresa garrile mostradorearen osteko emakumeagan. Nik, isil-isilik, nire berri eman nioan. Bere erantzuna ez zuan munduko goxoenan izan. "Koñazo" handia ematen ari gintuan, antza.

Gauza duk, horrelako toki batean, uda gerturatzeaz dagoenean lana neurri handian ugaritzen dela. Urtean zehar zenbat jende joango duk ba malariaren aurkako txertoa hartzera? Negu erdian eguzki bila Amazonasera doanen bat. Bere anaia mihiolaria bisitatzera Kinshasara doan hura. Edo bestea. Baina orokorrean urte guztian besoak gurutzatuta izatetik, bi eskuak erabiltzen hastera... akabola!

Lanak gainezka egiten digunean gureak egiten dik. Gure hiztegian ez duk sartzen "calma amigo!" moduko hitz-elkarturik. "Zibilizatuak" gaituk. Europearrak. Irribarreek asko balio ditek hemen. Ez dituk hala nola oparitzen. Ez duk, ez, inbertsio segurua.



PAZIENTZIA, ZAURI GUZTIEN GOXAGAILU



Esaera zaharra

## Zuretzako artista.

Goguan dakat lehenengo aldiz hirurok kantuan urten ziñaten aldixa. Zuek ez ziñaten trankill egongo igual, baiña ez pentsau eh... gu ez geunden asko hobeto. Gure umiak, urte osuan zela edo hala gobemau genduzenak ixo bihar ziran tablaura. Lotsia nun sartu jakiñ ezinda, baiña lotsagabe-lotsagabe. Eta juan zan aurrera haura, eta poliki-poliki eskolan entzuten zan zeozer. Bertsuak existitzen ziran itxuraz, eta gaiñera zer eta aibal! Hiru ezagun bertotan! Eta bat-batian! Eta harrittu eitten zan jentia entzute hutsian. Ondiok gehixao harrittuko ziran batzuek Gipuzkoako final hartara allau ziñaten urtian.

Eta akaso batenbat bai, orduan ere harrittuko zan, zuk zeuk Euskal Herikuan bigarren atara zenduanian.

Denporia pasau da lehenengo aldi hartatik. Gauzak aldatuz juan dira, eta beste bixak erdi bidian geratu jakuz. Interesak aldatuz juaten dira bai, eta txarra ere ez da hori. Baiña aurrera jarraitu dozu zuk Mikel. Eta ez edozelan gaiñera.

Lortu dozu berriz ere, aspaldiko hartan bezela, berriz ere zure inguruko danok harritzia. Lortu dozu irriparría ataratzia danori tablaura ixotzera juan zaran momentuan. Jari gaittuzu nerbioso mikorra gerturatu zaranian. Eta zure bertsua entzuten geundela, lelo arpegixa geratu jaku danori. Eta txalo egin dizugu gero fuerte-fuerte; berruak eskatu bezela... Mikel, malko bat baiño gehixago atara zenigun juan zan bariakuan Bergaran. Hori dana eta gehixago lortu dozu, artista. Eta zeuk bakar bakarrik!!! Zorionak eta eskerrik asko.

Eutsi horri gaztia, ona zara eta!!! Patxo haundi haundi bat eta Altsasun egurra!

**AINHOA**

## Heritarron borondatea errespetatzeko ariketa: 182.2 artikulua

2007ko maiatzaren 27an egin diren udal hauteskundeetan nabarmen gelditu da demokrazia eza. Ezker Abertzaleak aurkezturiko hautes-zerrenda asko ez dira errespetatuak izan, hauen artean Elgoibar-koak. Milaka heritar ordezkariarik gabe utzi nahi dituzte. Hala ere, oztopo guztien gaintetik, 1.041 elgoibartarrek hautatu dute EAE-ANVren zerrenda, botoa emateko orduan. Horrela, heritarron borondatearen arabera, udal zinegotzien kopurua hauxe izango litzateke: PNVk 5 zinegotzi, ANVk 3, PSE-EEk 3, EAK 3, EB-Aralarre 2 eta PPK 1.

Baina, EAE-ANVko bozkak nulotzat hartuak badira, PNVk 7 eta PSE-EEk 4 zinegotzi hartuko litzukete. Beraz, alderdi hauek ez dagozkien zinegotziak eskuratzeko aukera izango dute, elgoibartar borondateari muzin eginez.

Heritarrek bozka bidez erabakitakoa errespetatzea, legez posible da. Lege-diarren 182.2 artikulua posible egiten du. Kasu honetan PNV eta PSOEk zerrendetik aukeratuak izan ez direnek, uko egiten badiote zinegotzi postua hartzeari, alkatearen esku geratzen da postu horien izendapena, EAE-ANVri bueltatuz. Azken legegaldian Marivi Aguirregomezcorta alkateak, egin zuen ariketa hau, EBko zinegotzia ordezkatzeko. 4 urte hauetan argi geratu da Alderdien Legea Ezker Abertzalea jarduera

politikotik kanpo uzteko ez dela tresna baliagarria, azken hauteskundeetako emaitzek agerian uzten duten moduan. Lege honen aplikazioak gure herriko elkarbizitza sozial eta politikoa gaiztotzea besterik ez du lortu. Konponbidearen bila, bilera bana eskatu diegu PNV, PSOE, EA eta EB-Aralarreko ordezkari. Egoera hau gainditzea demokrazian eta eskubideen defentsan inplikaturik gauden alderdi eta eragile guztion erantzukizuna dela uste dugu. Guztion esku dago jendarte giroa hobetzea eta baita ere heritarron eskubideak errespetatzea.

**I. ODRIOZOLA, I. IBABE ETA I. BENGOTXEA**  
ELGOIBARKO EAE-ANVko ZINEGOTZIAK

## Musika Eskolan ez dabilzan haurrak eta tanborrada

Duela hamabost eguneko BARRENen, Musika Eskolan ez dabilzan haur batzuen galderari erantzunez, oso erantzun polita irakurri ahal izan genuen tanborradan parte hartzeari buruz: urtero jo izan omen dute Musika Eskolako ikasle ez direnek eta ez omen dute inor bazterten. Hori guztiz zuzena ez dela esan nahi nuke: nik neronek ezezko erantzuna jaso nuen iaz, nire semeak (ez da Musika Eskolako ikasle) tanborradan parte hartzerik ote zeukan galdetu nuenean. Musika Eskolaren erantzunak txundituta utzi ninduen. Okerreko atea jo ote nuen, ba! Dena dela, poztzen naiz aurrerantzean parte hartzeko aukera izango duela jakiteaz.

**N.G.A. - 15376514W**



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.



**barren**

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizaria.com](mailto:barren@elgoibarkoizaria.com)  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: [barrenpubli@elgoibarkoizaria.com](mailto:barrenpubli@elgoibarkoizaria.com)

Argitaratzailea:



**ELGOIBARKO IZARIA**  
SOCIÉTAT EUSKARAZ

ZUZENDARIA Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea  
PUBLIZITATEA Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Ananue  
KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jaxone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.650 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



## KEXAK

• **Erretxindi auzotik Basartera joateko bidean zebra-bidea falta da:** "Jende asko joaten da oinez Erretxindi ingurutik Basarte edo Mintxetara, eta ez dago bidea gurutzatzeko zebra-biderik. Ingu-rune honetan kotxe asko ibiltzen da, eta nahiko azkar, gainera. Oinezkoek kontu handiz ibili behar izaten dute, eta mesedez, ezer larririk gertatu aurretik, zebra-bide bat jartzeko eskatuko nuke".

• **Guass inguruko bizilagunek zarata handiegia jasaten dutela adierazi digute:** "Urte asko daramatzagu Guass dantzaleku inguruko bizilagunok asteburero sekulako zarata jasaten. Bertara joaten direnek, kotxeetan musika oso altu jartzen dute eta ezin izaten dugu lorik egin. Hori gutxi ez balitz, ingurune guztia zikin-keriz beteta lagatzen dute. Udan gainera, dantzalekuko atea irekita egoten dira, eta zarata handiagoa izaten da. Udal Go-bernu berriari egoera hau kontrolatzeko eskatu nahi diot. Ez na-go jendeak ondo pasatzearen kontra, baina guztiok daukagu la-sai lo egiteko eskubidea. Mila esker".

• **Madalako errotondak aparkaleku berria dirudi:** "Ez da posi-ble! Elgoibarko errotondak aparkaleku bilakatu dira. Madalako errotonda egunero kotxez beteta dago eta Santa Ana kalekoa ere, joera berbera hartzen ari da. Sekulako arazoa daukagu aparkalekuarekin, baina mesedez, errotondak ez dira kotxeak la-gatzeko".



## TXALOK

• **DEBEMEN elkarateak eskerrak ematea nahi die VI.Trinitate azo-kan parte hartu zuten guztiei:** "eskerrak batetik, antolakuntzan parte hartu zuten guztiei, baita ere ganadua zaintzen eta azoka bukaeran jasotzen ibili ziren gazteei, eta dastaketa orduan pres-taketa lanetan aritu zirenei ere. Azkenik Zubi-Ondo elkarteko ki-deei eskerrak ematea nahi dizkiegu bertan eman zen bazkarian eskeinitako arretagaitik".



• **Udal Euskara batzordea txalotu nahi dot,"Bertso Tranpak" an-tolatziarren:** "Paiatarrek, Egañak eta batez ere Lipusek egundoko emanaldixa egin zaben, eta bertaratu giñanok ez dogu ahiztu-ko. Hiru ordukoa izan arren, igarri ere egin gabe pasatu jakun denporia, eta barre algara edarrak egin genduzen. Zorionak, bai antolatzaillieri eta baita artistei ere".

Aital honetarako kexak, txalokak edo galderak helarazteko:

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12



Elgoibarko  
Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





## URRUZUNOREN Luma

### Argentinar euskalduna

Buenos Aireseko auzo batean jaio zen 1978an urte eta argentinarraren peto-petoa da. Baina aitaren partetik birraitona nafarra eta amaren partetik birraitona bizkaitarra zituen, eta gurasoak euskal kultura ezagutu zezan tematu ziren.

Horrela, San Fernandoko Euskal Etxean izena eman zioten, umetan, eskola eta gero bertara joan zedin euskara ikastera. Klasean izugarri aspertzen zen ordea, eta 4 urte beranduago, euskaraz tutik ez, baina pilotan ganoraz jokatzen zekien; hori besterik ez euskal kulturaz. Nik Alemanian ezagutu nuen O2ko udan. Uda pasa eta ez nuen berri gehiagorik izan, orain dela gutxi idatzi didan arte. Urte guzti hauetako isiltasunaz galdetu eta bere blogaren helbidea eman dit; hor topatuko ditudala erantzun guztiak. Ia Hegoamerika osoa zeharkatu du bizikletan eta orain antzerako zerbaitek egitekotan dabil motorrean. Gero Euskal Herrira etorri nahiko luke, eta lortu edo ez, hitza eman diot urte batzuk barru bere memoriak idazten lagunduko diodala, „che, pero en vasco%“.

Unai Villena

# BOTAINK!

Hauteskundeak pasa ondoren, legegaldi berrirako Udal Gobernuari buruz galdetu dugu Botaink! atalean. Nola-ko Udal Gobernu osoatzea gustatuko litzazuke? Jarraian bildu ditugu herritarrek [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) atarian egindako komentario batzuk:

**Gaztia:** Ez litzake batere gaizki egongo ezkerreko Udal Gobernu osoatzea: PSE-EE, EB-ARALAR eta EA. Eta PNV behingoz alkatetzatik kendu. Nire proposamenean Ovidio bihurtuko litzateke Elgoibarko alkate.

**Ni:** Alde batetik oso pozik nago, ezker abertzaleak atera dabezen emaitzekin, baina bestetik oso haserre: bigarren indarra herrixan eta ezer ez bagendu atera bezala!!!

**Andoitz:** Gobernu ezkerreko bat baino EAJ-EA ikusten dot aukera gehixaokin. Bixen artian gehiengo absolutua eukiko leukie. EAJk esan du bere lehenengo aukeria EA dala. Gauzak beste modu batera egingo ditutuala esan du EAJk Jon Peliren eskutik, baina hortik EAJ gobernu kanpo lagatzera alde haundixa dago.

**Iluso:** Zintzoa, transparentea, irekia, partehartzailea; herritarrei entzun eta kasu egingo diona, berea ez den alderdietako ordezkariak esaten dutenari ere kasu egingo diona, alderdikeriak baztertuko dituen... posible al da horrelako Udalik?

[www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)

## MEDIATEKAN

erretratu gehiago



[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.



## [AKORDATZEN NAIZ]



**MARI TERE IRAEGI**

1932an jaioa

### «Ezkontza zibillak»

**N**ik primeran ikusten dot gaurko gaztiak elizaz ez ezkontzia: eurak zibillez nahixago bada-be, neri oso ondo iruditzen jata. Eliza-ko rituala eta filosofixa neri gustatzen jataz, zeozer topatzen lagundu diit, Jaungoikua topatzeko modua eman diit eliza katolikuak. Musulmanak igual berdin-berdin emango zidan.

Nik Jaungoikuakin sinisten dot, baiña katolikuak ikusten dot gauza onak eta txarrak ere gehixegi diituela;

orduan, ez dot esango katolikuak santuak diranik.

Aitta Santua bezela: batzuk estimau diitut, baiña beste batzuk politiko hutsak dira. Oingua etxata batere gustatzen. Juan XXIII apostolu bat moduan ikusten naban, gizon santua zan eta haura gustatzen jatan. Eliziak esaten daban guztia ez dago ondo; beraz, ezkontza zibillak ondo ikusten diitut, eta gay eta lesbianak ezkontzeko ere ez dakat arazorik.



## [GURE BERBAK]

### *Fonologia (12): alternantzia bi*

Fonologian, berba batzuetan bi soñuren artian zalantzia badago, bi erataria entzuten bada, orduan alternantzia bat daguala esaten da. Ba, gaur Elgoibarren gertatzen diran era horretako bi alternantzia klase ikusiko diitugu. Batetik, L/D kontsonantien artian daguan alternantzia; bestetik D/R kontsonantien artian daguana: Lehendabizikuaren adibide batzuk dira hauek:

*belarra / bedarra  
illarra / idarra  
zillarra / zidarra  
elurra / edurra*

Bigarrenaren adibidiak dira, berriz, hamen-go hauek:

*abadia / abaria  
partidua / partirua  
edozer / erozer  
bidia / biria  
edo / ero*

Aditzaren jokuan ere gertatzen da bigarren alternantzia edo txandakatze hau, ondoko aditz-forma hauetan ikusten dogun bezela:

*ikusi zindduran  
ekarri dizuveraz  
hamen daure  
haura etorri dakiran*

*Jesus Mari Makazaga*



**MEKANOSA**

Errosario, 30  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**URKIDI**  
AHOLKULARITZA



**Antonio Urkidi**  
**Josefina Fernandez**

Tel.: 943 74 18 91  
Faxa: 943 53 01 49  
Kalamua, 12

## AURREMATRIKULAZIO GARAIA LANBIDE HEZIKETAN

# INDUSTRIAKO ATEAK ZABALIK EMAKUMEENTZAT

*“Emakumea bazara eta lanerako gogo badaukazu Elgoibarrek une honetan bizi duen industria-koiunturak aukera paregabea eskaintzen dizu”. Mezu hau zabaldu nahi izan digu Iñaki Konde, BH Institutuko zuzendariak, Lanbide Heziketan izena emateko aurre-matrikulazio garaian gaudenean. Izan ere, Elgoibarko industria sarean belaunaldi errelebo garrantzitsua aurreikusi dute datozen bizpahiru urteetarako. Alegia, gehiago izango dira jubilatuko diren langileak, zonaldeko Lanbide Heziketa zentroek hezi ditzaketanak baino. Enpresek eta ikastetxeek emakumeengan jarri dituzte begiak behar dituzten lanpostuak betetzeko.*

### ZERGATIK EMAKUMEAK?

Enpresek langileak eskatzen dizkiete Lanbide Heziketako ikastetxei eta konturatu dira, datuek hala diotelako, emakumeak direla langabezia gehien sufritzen dutenak. Lanbide Heziketako arduradunen erronka, egungo joerak aldarazi eta ikasleak, batez ere emakumezkoak, Lanbide Heziketara inguratzea da. Hortaz, nola erakari emakumeek lanpostu industrialetara?

Elgoibar herri industrialia da, zalantzarik gabe, hortaz, zergatik ez dira ikasle elgoibartarrak Lanbide Heziketara hurbiltzen? (Lanbide Heziketa ikasten diharduten ikasleen %12 bakarrik da elgoibarta-

rra). Ulergaitzagoa da jakinez gero, lan baldintza duinak, soldata onak eta langabezi gutxiko sektorea dela.

«Ikasleen  
%35 bakarrik  
hasten da  
Lanbide  
Heziketan»

Datuak helburu honen aurka tematzen dira, ordea: “Batxilergoa egiten diharduten ikaslee elgoibartarren %35ak bakarrik (%45 Gipuzkoan) aukeratzen du Lanbide Heziketa gure Institutuan eta IMHn, eta hauetatik erdiek bakarrik arlo industrialia, gainerakoek zerbitzuen arlotik bideratzen dituzte ikasketak” azaldu digu Kondek.

Hau da, gehiengoak (%60) Unibertsitatea aukeratzen du, eta hauetan ere neskek nagusi. “Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa aukeratzen duten ikasleen kopuruak orekatu behar ditugu, biak baitira funtsezkoak gizartearen garapenerako”.



### Iñaki Konde:

*BH Institutuko zuzendaria izateaz gainera, Ikaslan Gipuzkoako zuzendaria (24 ikastetxe eta 10.524 ikasle bameratzen ditu), Lanekiko (Lanbide Heziketaren Garapenerako Elkarte) kidea eta Lanbide Heziketarako Sailburuordearen aholkularia da Iñaki Konde elgoibartarra. Lanbide Heziketaren alorrean ezagutza eta zer esanik baduenik ezin da ukatu.*





## DATUAK:

### Lanbide Heziketako ikasleak:

- BH Institutua: **243**  
(ikasleen %35)
- IMH: **249**
- Ikasle elgoibartarrak: **%12**
- Ikasle eibartarrak: **%13**
- Ikasle emuarrak: **%8**
- Urola bailarako ikasleak: **%23**

### Emakumeak Lanbide Heziketan:

- Fabrikazio mekanikoa: **%13**
- Elektrizitatea/elektronika: **%8**
- Automozioa: **%1**

Zergatik Unibertsitatearen aldeko joera hau? Ikasle eta guraso askoren pentsamoldean dagoela muina uste du Institutuko zuzendariak. "Langile asko krisialdian pasatako sufrimenduetaz akordatzen dira eta beraien seme-alabentzako onena nahi dute. Ez dituzte tailer batera bidali nahi, Unibertsitateara baizik, hori egiteko aukera eta ahalmena daukatelako. Unibertsitatean hezitako profesionalak ezinbestekoak dira gizarterako, noski, baina asko langabezia geratzen dira karrera handiak ikasi eta masterrekin apaindu badituzte ere. Gure ikasleak izandakoak langabezia eta zer egin ez dakitela kalean topatzen ditudanean kalte egiten dit. Demaseko frustrazioa edukitzen dute eta ez dira ausartzen edo gogorregia zaie beste ikasketa mota batzuk hastea. Administrazioa, automozioa edo Lanbide Heziketako beste zerbaite ikasten hastea umilazio modukoa da beraiantzat, eta baita beraien gurasoentzat ere. Zergatik ez pasa, ordea, formazio zentro batetatik? Urtebetean hezita lanean egongo lirateke".

Honekin lotuta, ikasketak amaitu aurretik Unibertsitatea bertan behera lagatzen duten ikasleen multzoa berreskuratu nahi luke Kondek. "Asko dira Unibertsitatea lagatzen dutenak, baina ez daukagu beraiengana iristeko modurik. Ikasleok la-

gundu eta bideratzeko datu base bat behar genuke, baina datuen babeserako legea oztopo bat da kasu honetan. Jakinarazi diogu Udalarari arazo honen berri".

«Elgoibarko industriak kalitatezko lanpostuak eskaintzen ditu»

### ZER NOLAKO LANPOSTUAK ESKAINTZEN DITUZTE ENPRESEK?

Alde batetik, Industri arloko enpresek kalitatezko lanpostuak (egonkortasuna, soldata onak, lan baldintza duinak) eskaintzen dituzte eta une honetan eskari handia dago. Bestetik, langile kualifikatuak behar dituzte enpresok, lantokien beharretara moldatzen diren langile konkretuak, alegia.

Lanbide Heziketa zentroen zeregina da, hain zuzen, langile mota hauek erakartzea eta heztea.

### ARAZO, LANGILEEN KUALIFIKAZIOA

Elgoibarko enpresek lan eske joan diren lagun askoren curriculumak dituzte apaletan pilatuta, baina langileon perfilak ez datoz bat enpresen beharrekin. Mekanizazioko langileak, montadoreak, diseinatzaileak, karguak, e.a. behar dituzte erreminta makinan.

Bien bitartean, bertakoak animatzen ez direla ikusirik, halabeharrez, beste langile batzuekin ari dira enpresak lanpostuok betetzen; etorkinak gehienak. Europa ekialdeko herrialde industrializatuetatik ekartzen dituzte behar dituzten langile kualifikatuak.

"Nola bideratu gure seme-alabak, Lanbide Heziketarantz? Hor dago gakoa. Askok zuzenean baztertzen dute aukera hau. Gure eginbehera, Lanbide Heziketaren aukera, aukera on bat moduan azter dezatela da. Gurea moduko herri industrialean funtsezkoa begitantzen zait gai hauetaz berba egin, arazoak aztertu eta informazioa zabalzea helburutzat izango duen lantalde bat sortzea, eta halaxe adierazi diet alderdi politikoei ere. Elgoibarrek industri alorrean duen ezagutza, bameratuta daukagun burdinaren kultura aprobetxatu eta gure ondorengoei helarazten asmatu behar dugu. Lanbide Heziketari dagokio bideak erraztea".

## [ PROTAGONISTA ]



### Jon Lizarralde

Jon Lizarralde dantzari elgoibarrak Kaxarranka dantzatu zuen Trinitate jaietako tanborradan. Lekeition dauka jatorria dantza honek. Arrantzale talde batek kaxa bat eusten du eta dantzariak gainean egiten du dantza. Kaxa horretan, kofradiako paperak gordetzen ziren. Hiru aldiz dantzatu zuen Jon Lizarralde dantza hau zapatu gauean. Kaxarranka oso gutxitan dantzatu da Elgoibarren. Ixidor Solupe izan zen lehenengoa 70. hamarkadan. Duela urte batzuk Oier Arazolazak dantzatu zuen galiziarren festetan eta 2002an Nazioarteko Folklore jaialdian.

## [ NOTIZIA ]

### Mendaroko Ospitala handitzeko eskatu du Debabarreneko Nagusien Kontseiluak

**D**ebabarreneko Nagusien Kontseiluak eskualdeko zaharren egoera zein den aztertu ondoren, Mendaroko Ospitala handitzeko eskaera luzatu du. Ikerketa honetan jasotzen denez, eskualdeko nagusiak kezkatuta bizi dira ospitaleko itxaron zerrendak luzeegiak direlako. Osakidetzako ospitaleen sarean itxaron zerrenda luzeena Mendaroko Ospitalak dauka. Askotan, beste ospital batzutarra bidaltzen dira gaixoak, eta horrek, sende nagusiei batez ere, eragozpen handiak sortzen dizkie. Gainera, gripe bolada handiak daudenean, larritasun handiegirik ez daukaten ebakuntzak bertan behera gelditzen dira.

#### Ohe gehiago behar dira

Nagusien Kontseilua Ospitaleko zuzendariarekin bildu zen, eta berak azaldu zizkien zein diren ospitalak dituen beharrik nagusienak. Gorka Sarasolaren esanetan, ohe falta da arazorik larriena. Duela 3 urte geratu zen txiki ospitala eta handitzeko beharra nabarmena da. 1999tik hona hobeakuntzak egin dira, batez ere, eguneko ebakuntzak gehitu dira. 14 ohe gehiago



sartu dira eta kirofano berri bat egin dute, besteak beste. Urtean 7000 ingreso izaten dira, 31.000 larrialdi, 140.000 kontsulta, 5.000 ebakuntza eta 600 erditze gutxi gora behera. 2000. urtetik hona kopuru hauek asko hazi dira.


Eskualdeko Nagusien Kontseilutik esan dutenez, Ospitaleko zuzendaritzak lan handia eta ona egin du, baina ez da nahikoa. Debabarreneko 1.000 biztanleko 1,45 ohe daude (Euskal Herriko batez bestekoa 2,6koa da). Beraien ustez, Ospitala 2010. urterako handituta egon behar da, zerbitzu guztiak berriz kolapsatu baino lehen.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Maiatza hotz eta euritsu baten ostean, badirudi ekainean eguzkia ikusten hasiko garela. Uda gainean daukagu, eta horren erakusgarri, bihar zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak. Aurten gainera, berrikuntzak egin dituzte bertan: igerilekuaren goialdean 6 mahai jami dituzte, umeentzako jolasgunean aparatu berriak eta berdegune gehiago ipini dira. Mintxetako aire libreko igerilekuak irailaren 15era arte egongo dira zabalik. Egun osoko sarrera 3,90 euro 18 urtetik beherakoentzat eta besteentzat 5,70 euro. 15:00etatik aurrera 2 eta 3 euro.

## Foru Aldunditik esan dutenez, Elgoibarko sahesbidea momentuz ez da egingo



**M**aiatza bukaeran, eta Udal Hauteskundeetarako egindako elkarriketa digitalen artean Elgoibarren egin daitekeen sahesbideri buruzko informazioa jaso genuen elgoibaren.net atarian. Dirudienez, Sigma ingurutik San Roke bailara zeharkatuz sahesbide bat egiteko proiektu bat zeukan Foru Aldundiak. Informazio garrantzitsua iruditu zaigu eta, ondorioz, saretik paperera ekartzea erabaki dugu. Hala ere, ezinbestekoa deritzogu informazio honen iturria azpimarratzea, hots, Morkaiko Mendizale Elkarteak eman baitzigun informazioa bai guri eta baita erabiltzaileei ere.

### Proiektua ez da bideragarria

Morkaiko Mendizale Elkarteak Foru Aldundiko teknikari batekin hitz egin zuen sahesbideari buruz, eta honek sahesbidea guztiz bideraezina zela esan zien. Bere garaian eta Lurralde Zatiko Planaren barruan sahesbidea aurreikusi zen, baina gaur egun indarrean dagoen Errepide Planaren barruan ez omen da agertzen. Foru Aldunditik proiektu hori eginezina dela diote, bariante horrek ez daukala inolako zentzurik. Lurralde Zatiko Plan honek

dagoen bezala aurrera jarraitzen du baina bertan agertzen diren proiektuek ez daukate zertan aurrera joan, bideragarritasun ikerketarik ere ez daukate eginda. Elgoibarko Plan Orokorrean ere, ez omen da agertzen.

### San Migeleko bidea

San Migeleko bideari buruz, Eusko Jaurlaritzako "Lurralde Antolaketarako Arauak" delakoaren barruan Gernika-Markina-Elgoibar-Tolosa korridorea aipatzen da eta horren barruan legoke San Migeleko bide berriaren proiektua. Proiektu honen bideragarritasuna zalantzan jarri zen Foru Aldundian.

### Foru Aldundia trantsizio egoeran

Une honetan Foru Aldundia trantsizio egoeran dago, Foru Hauteskundeak egin berriak dira-eta. Foru Gobernu berria osatu bezain laster, BARREN astekaria bertako kide berriekin harremanetan jarriko da, eta Elgoibarko sahesbidea zein San Migeleko errepideari buruzko informazioa lortzen saiatuko da, gure irakurleei informazio ahalik eta zehatzena emateko helburuarekin.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Euskarazko gestio programak

Udaleko Euskara Batzordeak dirulaguntzak emango dizkie gestiorako programa informatikoak euskara hutsen jartzen dituzten elkarte, denda eta tabernei. Gehienez, 600 euroko laguntza emango zaio bakoitzari. Eskara kopuruak ezarritako aurrekontua gainditzen badu, eskatzaile guztien artean banatuko da dirua. Aplikazio informatikoa nolako den ikusi nahi dutenek edota dirulaguntza hauei buruzko informazioa eskuratzeko, Udaleko Euskara Sailera jo daiteke (943744366).

### Gemma Monrealen koadroaren zozketa

Gemma Monreal margolariak koadro bat eman zien BH Institutuko ikasleei, ikas bidairako dirua lortzeko. Zozketa egin dute eta 2.373 zenbakidun errifa izan da saritua (erreserba 0992). Bigarren saria MP3 erreproduktorea izan da 3.813 zenbakiarekin (erreserba 1.178). Sari banaketa ekainaren 29an egingo da Herriko Antzokian 19:00etan.

### Lapurreta egin dute San Bartolome parrokiari

Azken aldi honetan lapurretak gehitu egin dira gure herrian. Oraingoan San Bartolome parrokiako lokaletan sartu dira lapurrak. Ostiral iluntzean gertatu zen lapurreta, eta elizako kideak zapatu goizean konturatu ziren. Benantzio Otaegi parrokoak esan digunez, ez dute balio handiko ezer eraman. Eskuzko ordenagailua eta euro gutxi batzuk lapurto dituzte.

### Amnistiaren Eguna

Oreteretan Amnistiaren Eguna ospatuko da bihar. Elgoibartik autobusak jarriko dira. Txuri Beltz eta Jai Alai tabernetan erosi daitezke tiketak. Bestalde, elkartsaun zozketan bi erloju zozketatu dituzte. Saritutako zenbakiak 37.852 eta 68.144 izan dira.

# Inkesta

ETAk bertan behera laga du su-etena.

## Zer sentitu zenuen ETAk su-etena bertan behera laga zuela jakin zenuenean?

**CARMEN FERRER**  
Etxekoandrea  
72 urte



“Amorrua. Esan diet etxekoei nik ez dudala ezagutuko ETAk armak uzten dituen eguna. Gobernu honekin espero zutena ez dute lortu eta hauxe izan da ondorioa.”

**PILI FREITAS**  
Etxekoandrea  
42 urte



“Pena handia. Hainbeste denboraren ondoren, beriz lehengora itzuli gara eta denok zaku berean gaude. Hauteskundeek eragin handia izan dutela uste dut.”

**NIEVES LOIOLA**  
Administraria  
52 urte



“Hasteko pena, eta gero, ETAko hiru enkaputxatu Euskal Herriaren izenean hizketan entzun nituenean, lotsa. Gehiengoak ez du hori nahi. Inpotentzia ere sentitu nuen.”

**ANA ETXANIZ**  
Etxekoandrea  
55 urte



“Su-etenak aurrera egiteko aukera gutxi ikusten nituen, ez neukan itxaropen handirik, baina pena handia hartu dut. Armekin ez dugu ezer konponduko.”

## [ BAI ala EZ? ]

### Gidari arriskutsuei soldata kentzea ondo ikusten al duzu?

**BAI %16**

“Bai. Printzipioz istripuak gutxitzeko hartzen diren neurri guztiak ondo ikusten ditut. Ez dakit horrekin nahikoa izango den, baina zerbait egin beharra dago.”

**EZ %84**

“Ez zait bidezkoa iruditzen inori soldata kentzea. Soldata langilearen eskubidea da eta ezin zaito kendu inori. Isuna jartzea ondo dago, gero bakoitzak ikusiko du nondik ordaindu behar duen.”

Datorren asterako... **ETAk su-etena hautsi du.**

**Su-etenik gabe, ba al daukazu bake prozesuak aurrera egingo duen esperantzarik?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean.** Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

# Belaustegi Baserria



## JATETXEA

San Migel Gaina z/g · Tel. 943 74 31 02



*Eskerrak  
guztioi!*

### Menu berezia

Ekainaren 8tik 17ra

Armagnac-patea pureekin eta Modenako  
ozpinarekin.

Otarroinxka eta hirugiar broxeta entsaladan.  
Abakando-bieira gratinatua.

Bakailaoa hostorean espinaka eta gaztarekin.  
Ahate-txuleta fruitu gorrien saltsarekin.




Meracuya baso txikian  
melokotoia eta izozkiarekin



Edaria eta kafea 38,50 € (+bez)  
(Asteburuan edaria ez dago bame)

# 8. urteurrena



Portxe-jardinean bazkaldu edo afaltzeko aukera.  
Ostiral eta larunbatetan, gaueko 10etatik aurrera kopak jardinean.

# Trinitateo

Ekintza ugari izan ditugu aurtengo Trinitate jaietan. Ume, zahar eta gazteek ederki gozatu dituzte bere rekin hasi ziren festak zapatu goizean, herri kirolak iluntzean eta nagusien tanborrada txiengo izan tanborrada ikustera atera zirenak. Madalan ere giro aparta izan zen eta herriarrek ez zuten hutsik egin artisau azokan eta haurren tanborradan. BARRENekeko gazki batzuk. Argazki guztiak eta tanborraden bideoak.



# ak 2007

ozatu zuten pasa den asteburuan. Ekitaldi asko, politikak, entretenigarriak... Feriada gauean. Kaleak txiki gelditu ziren. Partehartzaileak asko baziren, ez ziren gungun osoan zehar. Gaua luze joan zen askorentzat, baina domeka goizean ere, kamarak ere, ez du deskantsurik hartu. Jarraian argitaratu ditugu asteburuko arloak [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) atarian jarri ditugu.





EXCURSIONES QUAD ADVENTURE

## ABENTURA GUSTATZEN ZAIZU?

Quadean ibiltzeko ibilaldi gidatuak antolatzen ditugu.

Benetan gogoko duzuna quadean ibiltzea bada, jarri proban zure gidari abileziak.



[www.quadorio.com](http://www.quadorio.com)

### EZ GALDU AUKERA. EZ ZARA DAMUTUKO.

Motoretan homologatuta daude bi pertsona eramateko eta, horietako batzuk, gainera, bikienak eramateko prestatuta daude. Seguruak, kaskua, uretako jantziak eta abar bane. Koadrilentzako, despedidatarako, enpresen pizgarrietarako ezin hobea.



Aita Lertxundi kalea, 22 behea (Autobus geltokian) • **ORIO**  
Tel.: 664 25 95 65 / 664 25 94 39 • Faxa: 943 13 48 53

# JATETXEA

# GORBEA



- Ospakizunak
- Bataioak
- Jaunartzeak
- Urtebetetzeak
- Despedidak



- Eguneko menua 9 €
- Asteburuetak menuak 18 eta 24 €
- Karta (enkarguz)
- Plater konbinatuak
- Bokotak
- Gazteentzako menua 12 €

Santa Ana, 10 • Tel: 943 74 05 80



## BERTSOLARITZA

# Mikel Olaizola txapelkunorde geratu da Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolaritza Txapelketan

Zumaian jokatu zen kanporaketan lortu zuen Mikel Olaizolak Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolaritza Txapelketarako txartela. Bergaran jokatu zen 14 eta 18 urte bitarteko finala joan zen astean, eta bertsolari elgoibartarra bigarren postuan sailkatu zen, Hodei Iruretagoiena zarautzarraren atzetik. Mikel Olaizola oso ondo aritu zen ofiziotan eta baita bakarka ere, bertsok ondo josis. Datorren ekainaren 23an Euskal Herriko txapelketan hartuko du parte Altsasun. Bertsolaritza

atlearen ere, aipamen berezia jaso zuen Mikelek bere mailan. Idatzizkoetan Maddi Mendibil elgoibartarrak ere jaso zuen aipamen berezia bere kategorian.

### Plazatik Gaztetxera

Uxue Alberdi bertsolari elgoibartarrak, bestalde, Plazatik Gaztetxera bertso txapelketaren finalean hartu zuen parte pasa den asteburuan Mutrikun. Debako kanporaketa irabazi eta zuzenean sartu zen finalera, baina oraingoan 5. postuan sailkatu zen.



## Triska Dantza Taldearen kurtso bukaerako jaialdia izango da hilaren 16an Olaizaga kirolegian



Ekainaren 16an emango dio amaiera Triska Dantza Taldeak aurten ikasturteari. Gaueko 22:00etatik aurrera, menu berezia izango da Olaizaga kirolegian. "Eta gaur txefaren proposamena" izeneko ikuskizuna eskainiko digute. Menu berezi bat eskaintzea da dantza emanaldi honen helburua. Jatorri desberdinetako jaki eta platerak nahasten dituen dantza saioa prestatu dute oraingoan; sukaldaritza tradizionala eta berria nahastuta aurkeztuko dizkigute. Besteak beste, Grezia, Frantzia,

Italia eta Japoniako platerak dastatzeko aukera izango dute kirolegira bertaritzen direnek.

Ikuskizun honetan, 4 urtetik 50 urtera arteko 140 lagun arituko dira dantzari. Ikasle guztiak, Eibar, Deba, Mendaro eta Elgoibar herrietakoak izango dira. Dantza emanaldi berezi honen zuzendaria, Josu Mujika elgoibartar dantzaria dugu eta Rosa Marin, berriz, multimedia muntaiaz arduratu da.

Sarrerak Pitxintxu opari dendan eros daitezke 3 eurotan.

## Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa 25 urte bete ditu aurten. Herri-herri kontzertu mordo eskaintzen ari dira, eta gurera ere, hilabete honetan iritsiko dira. Honela, datorren ostegunean, ekainak 14, kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian. Emanaldia iluntzeko 20:00etan hasiko da. Sarrerak salgai daude dagoeneko, eta 3 eurotan eros daitezke Kultura Sailean goizez edota, Gazte Informazio Gunean arratsaldean.

## Euskal jaien logotipoa duten txartelak banatuko dira

Uztailaren bukaeran Euskal Jaien mendeurren izango dela gogorazteko, jaien logotipoa daramaten txartelak banatuko dira herriko denda eta tabernetan. Plastikozko txartel boro bat kaleratuko da hurrengo egunotan eta bertan, Euskal Jaien logotipoa dago inprimatuta alde bietan. Txartel horren 250 ale egin dira, eta hasiera batean, erdiguneko dendetan eta tabernetan banatuko dira. Hala ere, txartel hori jaso ez duten dendari edo tabernariak Euskara Sailera (943744366) jo dezakete txartela eskatzeko.

## TRINIMUSIK

# TRINIDADEKO BASELIZA BERRITZEKO MUSIKA

*Trinidade basiliza berritzeko dirua biltzeko asmoz sortu da Trinimusik diskoa. Mendaroko musikariek egindako lana da. 100 lagun inguru aritu dira musutruk disko honetan lanean, eta herriak ez die hutsik egin. Pasa den barixakuan izan zen aurkezpen kontzertua San Agustin Kultur Gunean, eta antolatzaileek esan digutenez, aretoa txiki gelditu zen. Interesatuak 15 eurotan eros dezakete diskoa udaletxean bertan.*

**D**atorren urtean hasiko dira Trinidade eliza berritzeko lanak. Proiektua eginda eta onartuta dago. Teilatutik hasiko dira berritze lanak. Eraikin guztiak dauka berritzeko beharra, baina batez ere, teilatua dago egoerarik okerrean. Guztira 50 milioi pezeta inguruko kostua izango du proiektu honek. Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko du %70a, eta gainontzekoa Udala, Obispatua eta herritarren artean.

Eta honela sortu da Trinimusik. Herritarrek herriaren alde eginiko lana da, kasu honetan, Trinidade eliza berritzeko dirua biltzeko elkartu ditu musikari guztiak. Udaletxetik sortu zen ideia, eta diskoaren finantzazioa ere bere gain hartu dute. 500 kopia atera dituzte guztira. Grabazioa elizan bertan egin dute "Tempestades" taldeak ezik. Hauek Amortoko Musikorta estudioan egin zuten. Kultura Saileko teknikariarekin berba egin dugu, eta lan han-

dia egin dutela aitortu digu. Proiektu orijinal bat egitea zen euren helburua, eta lortu dute. 18 abestiz osatutako diskoa da. Bakoitzak bere estiloan egin du lan, baina emaitza "bikaina" izan da. 8 musika talde eta bertsolariak aritu dira diskoan. Guztira 100 lagun ingururen ilusioarekin eginiko lana izan da. Estiloari dagokionean, ezin da musika estilo jakin batean sartu, bertsuetatik tekno estilo musikara arteko nahasketa aurki daiteke.

## Diskoko partaideak

### JUAN ARRIOLA "ARTA" ETA JUANJO OTXANDORENA

Biolinerako doinu asko sortu ditu Artak. Gehienak gure herri dantza eritmoak. Grabaketa honetan Juanjo Otxandorena hernaniarraren laguntza izan du bouzoukiarekin.



### EMEZABAL TRIO

Olatz, Unai eta Iñigo Ruiz de Gordejuela anai arrebeak osatutako taldea da. Oraingoan, amak hartu du Iñigoren ordez pianoa jotzeko ardura. Piano, biolina eta biolontxelo jotzen dituzte.

### ELIZ ABESBATZA

30 urte inguru daramatza gizon-emakume talde honek musika elizkoia eta herrikoia uztartzen. Beraien ahotik izan dugu ia ahazturik zeuden herriko abesti zaharrak eza-gutzeko aukera.



### AMEIKUTZ MUSIKA ESKOLA

Herriko artisten harrobia dugu musika eskola. Beraiena da musikari txikiak trebatzeko ardura. Etorkizuneko artisten eskola da.

## Trinidadeko eliza

Mendaroarrentzat esanahi berezia dauka Trinidadeko elizak. Mendaro herri bezala sortu aurretikoa dugu eliza hau. Data zehatzik ezagutzen ez bada ere, Mendaroko eraikinik zaharrenetarikoa dela argi dago. Don Anjel apaizak esan digunez, 1647. urteko liburu bat behintzat badago, Trinidadeko elizaren diru kontuei buruzko liburua dugu hau. Dena dela, eliza zaharra dela aipatu digu berak. "1452. urtean Garagartzako eliza eraikitzeke baimena eskatu zuten, eta estiloari begiraruta, Trinidadeko eliza ere garai hartakoa izango dela uste dut, zaharra ez bada".

Juan Jose Goikoetxea historialariaren "Historias de una Gipuzcoa desconocida" liburuan azaltzen denez, Trinidadeko eliza Astigarribiako San Andres baselizarekin batera, Mendaroko eta bailarako zaharrena da.

Mendarozabal auzoko bizilagunek lan handia egin dute Trinidadeko eliza mantentzeko. Gaur egunera arte zutik



iraun badu, auzotarren lanagatik izan da, hein handi batean.

Eraikuntzan ageri diren materiale desberdinek argi erakusten dute elizak berrikuntza bat baino gehiago jasan dituela. Garai diferenteak atzeman daitezke. Dirudienez, hexagono itxurakoa izan zen hasiera batean, egungoa baino baxuagoa, kareharriz eginkoa eta lau zutabetan oinarritua. Bigarren fase batean erreka harriekin, burdinoleta soberakinekin eta landutako kareharriz amaitu ziren lanak 1663. urtean. Antza denez,

elizak ez dauka balore artistiko handiegirik.

Jai Batzordeko Antonio Iriondo "Kapainek" azaldu digunez, Trinidadeko jaiak aspaldikoak dira Mendaron. Garai hartan ganadu eta barazki feria garrantzitsua egiten zen eliza aurrean, Elgoibarko feria baino lehenago. Egunen batean, eta arrazoi baten ondorioz, feria hura Elgoibarrera eraman zen. Kapainek argi esan digu: "Elgoibarko Trinidadeko jaien jatorria Mendaron dago. Elgoibarren ez dago Trinidadeko elizarik, ez kalerik... jai horiek gureak dira".

### BIZI POZA TXARANGA

1991. urtean sortu zen txaranga hau. Kalez kale aritzen dira jai giroa zabaltzen. Parrandarako doinuak entzungo ditugu gazte hauen eskutik.



### TEMPESTADES

Kilimon ertzetik punrock doinuak egiten dituen taldea dugu hau. Markel Portu ahotsa eta baxua, Ekhi Unanue gitarra eta Josu Tellabide batera.

### MUNLET

Lady Finger eta Herr Professor definitu ezin diren bi musikari ditugu. Identifikatu gabeko Munlet izena duen objektu batean bidaiatzen dute. Beraien musika estiloa zehaztea ez da erraza: rock, punk, musika elektronikoa, sikodelikoa... "Electropsycho-rock".



### BITORIANO LOIOLA "OSPAZ" ETA JANIRE ELORDI

81 urterekin gazte asko nahiko lukete bere eskuen abilezia. Makina bat urtetan girotu ditu Trinidadeko jaiak. Oraingoan biloba hartu du lagun. Hiru gizaldi trikiti doinuak elkartuta.

### JABIER URBIETA ETA JUAN LOIOLA

Loiola eta Urbietta izan dira urteetan Trinidadeko jaietan hitz jolasean aritu direnak. Oraingoan ere, euren hitzak bertsotan bota dituzte disko honetan.



## ESKUBALOIA

### Olalsa eskubaloi taldea Euskadiko Txapeldun

**E**uskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetako Txapelketa irabazi du Olalsa, infantil mailako eskubaloi taldeak. Denboraldi aparta burutu dute aurten Lorea Gabilondok eta Nerea Gilek entrenatutako neskek. Gipuzkoako txapeldun geratu eta gero, Espainiako Igoera Fasean parte hartu zuten Almerian eta denboraldia borobiltzeko Euskadiko txapela eskuratu berri dute Faduran jokaturako hiruko torneoan. Lehen partidari, 25na berdindu zuten Bizkaiko txapeldunen aurka (Kukullaga Etxebarri). Demaseko emozioa izan zuen partidak eta penaltietan erabaki zen irabazlea. Estibaliz Bilbatua atezainaren lana funtsezkoa izan zen garaipenean; 5 penalti gelditu zituen eta gol erabakigarria ere berak sartu zuen penalti-puntutik. Bi-



garren partidari, elgoibartarrek aise hartu zituzten mendean (30 eta 8) Arabako txapeldunak (Mendebalde). Bizkaitarren eta

arabarren artean jokatu beharreko partidak ez zuen garrantzirik, txapela Olalsako jokalarientzat baitzen.

#### Debarroko Txapelketako finala galdu zuten jubenilek

Kolorerik gabeko finalean 22 eta 1 galdu zuten Arribillaga eta Lizarralde. Eskoriatzako bikotea erraz nagusitu zen Elgetako frontoian jokatu zen finalean. Hala ere, elgoibartarren mesedetan esan behar da aurrelari elgoibartarra, Arribillaga, kadete mailan dagoela oraindik. Kepa, ohiko aurrelariak azken orduan min hartu eta haren ordeztu behar izan zuen Lizarralderekin bikote eginez. Finalean gertatutakoak ezin du ilundu txapelketan egin duten lana.

#### Nagusientzako tenis ikastaroa

40-15 tenis elkarteak nagusientzako tenis ikastaroak antolatuko ditu ekaina eta uztaileko hilabetetan. Ikastaroak IMHko tenis pistari izango dira eta 14 urtetik gorako edozein pertsona hartu ahalko du parte. Ikastaldea mugatuak izango dira; gehienez 7 pertsonakoak eta gutxienez 3 pertsonakoak. Izena emateko orriak eta ordutegiei buruzko informazioa Olaizaga kiroldegian jaso daiteke. Izena emateko azken eguna ekainaren 13a izango da.

### Arauzko baldintzak beteko dituen frontoia eskatu dio Udalari Lagunak Pilota Eskolak

Datorren legealdian "arauzko baldintzak beteko dituen frontoi berri bat eraikitzeko konpromisoak hartzeko" eskakizuna luzatu dio Lagunak Pilota Eskolak Udalari eta alderdi politiko ezberdinei. Une honetan 56 ume ditu pilota eskolak eta pilotari hauetako batzuk, behar den bezala entrenatu ahal izateko, beste herriren batzuetara (Mendaro, e.a) joan behar izaten dute. Pilotarekiko maitasunak gidatzen dituen Lagunak Eskolako kideei ulergaitza egiten zaie Elgoibar moduko herri batek arauzko

pilotalekurik ez edukitzea. "Elgoibar industria indartsua eta pilotari garrantzitsuak eman dituen herria izanik, zertan gaude gu arauzko pilotaleku baten jabe egin gabe, inguruotako edozein herri bere frontoia eta kiroldegia behar diren baldintzetan dituenen? Elgoibarrek askoz gehiago merezi duelakoan gaude". Momentuz frontoia eraikitzeko proposak izan daitezkeen 8 kokagune proposatu dituzte, baina Udalean frontoi berri bat egitea ez dela "lehentasunenetan" sartzen erantzun diete.



## TRIATLOIA

### 3 elgoibartarrek parte hartuko dute Zarauzko Triatloian



**E**uskal Herriko Triatloi zirkuituko proba nagusia jokatu da zapatuan (ekainak 9) Zarautzen. Urgazi Triatloi taldeko 3 kide elgoibartarrek parte hartuko dute nazioarteko proba honetan: Ibon Gabilondok, Iñaki Kondek eta Jesus Mari Agirretxek. Munduko triatleta onenen aurka neurtu beharko dituzte indarrak ibilbide gogorrean: 2,5 km. igerian

(Getariatik Zarautzera), 82 km. bizikletan eta 20 km. antxintxika. Triatleta asko Ironman denboraldia prestatzeko asmoz joango da Zarautzera, tartean Iñaki Konde, abuztuan Ironman bat korritzeko entrenatzen ari baita. Arratsaldeko 14:45ean hasiko dira emakumeak eta ordu laurden beranduago mutilak. Informazio gehiago: [www.blogak.com](http://www.blogak.com)

### Garazi Osoro Gipuzkoako txapelkun luzera jauzian



4,29 metroko jauziari esker lortu zuen Garazi Osorok urrezko domina alebin mailako Gipuzkoako Atletismo Txapelketan. Pilota jaurtiketako proban, berriz, 3. postuan sailkatu zen 31,50 metroko jaurtiketarekin. Mintxeta Atletismo Taldeko 5 lagunek (Garazi Osoro, Malen Laka, Lorea Santiago, Leire Basterretxea eta Mikel Sagama) parte hartu zuten Zumarragan jokatu zen txapelketan eta postu aipagarriak egin zituzten. Lorea Santiago eta Mikel Sagama, esaterako, 2. postuan sailkatu ziren 2.000 metroko lasterketan, bakoitza bere mailan.

### Eskolarteko Xake Txapelketako partidak Usuako parkean

Zapatu honetan (ekainak 9) goizeko 11:30ean jokatu dira Eskolarteko Xake Txapelketako partidak Usuako parkean (euria eginz gero, udaletxeko arkupeetan). Gaztetxoeren trebetasuna gertutik jarrai-

tzeko aukera izango da. Arratsaldean, berriz, Nagusientzako Elgoibarko 21. Taldeko Xake Txapelketa jokatu da Elgoibarko Xake Taldeak antolatuta, 16:00etatik aurrera.

### [ EMAITZAK ]

#### ESKU PILOTA

##### Debaroko Txapelketa (finala)

Eskoriatza (Oiarzabal/Agiriano) 22 - Lagunak (Aribillaga/Lizarralde) 1 (jub.)

##### Lagunak Txapelketa

Mugerza 18 - Gabilondo 7 (Benj.)

Larraskin 18 - Perez 7 (Benj.)

Ruiz 18 - Aranatz 8 (Benj.)

Gurrutxaga 18 - Ibarluzea 12 (Aleb.)

Arriola 18 - Loidi 17 (Benj.)

Salagi 18 - Ibarluzea 8 (Aleb.)

Conde 18 - M. Agirrebeña 5 (Aleb.)

### [ AGENDA ]

#### FUTBOL 7 Mintxetan

##### Zapatua, 9

10:00 Iparrak - Ladkh


10:00 Bikingoak - Kashima Brewers

11:00 The Rockies - The Ravel's

11:00 Pauperimo Balonpie - Vultur Gryphus

### Eskalada jardunaldi arrakastatsua

Udal Kirol Patronatuak antolatutako Eskalada jardunaldian parte hartu zuten gaztetxoek Olaiizaga Kirolegiko bazter izkutuenak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten joan zen asteburuan. Josu Merino eskalatazailer elgoibartarrek eta honen laguntzailer jarritako soka eta eskaladako tramankuluei ezker eskaladaren oinarriko kontzeptuak bereganatzeko aukera izan zuten, eta baita Kirolegiko zapaitik kantxara ziztu bizian jaisteko parada ere, antolatazailer jarri zuten tirolinari esker.



## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- ▶ Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna, despentsa. Eguzkitsua. ☎ **616213332**
- ▶ Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna. Igogailua, ganbara. Berritua. Garajea aukeran. Prezio interesgarria. ☎ **686208143**
- ▶ Atiko berritua salgai erdialdean. Igogailua, berogailua, komuna, sukalde modemoa, jangela-egongela handia, 2 logela. bizitzera sartzeko. ☎ **656780459**
- ▶ Etxea salgai Sorluzen. 2 logela, sukaldia eta bainua. 80.000 euro. ☎ **943772118**
- ▶ Etxe eguzkitsua salgai. 3 logela, egongela, jangela, sukaldia, komuna. Berritua, altzariekin. Bi igogailu eta ganbara. ☎ **680707639**

- ▶ Pisu oso polita salgai Altzolan. ☎ **650243359**
- ▶ Etxea salgai San Roken. Berria bezalako. Prezio negoziagarria. Egongela, 3 logela, 2 komun, sukaldia eta despentsa. Garajea eta ganbara. ☎ **646405567**
- ▶ Etxea salgai Sigman. Bizitzera sartzeko. Bista onak. Balkoia, sukaldia, egongela, komuna, 3 logela. ☎ **676623114**

### ALOKAIRUA

- ▶ 2 edo 3 logelatako etxea hartuko nuke. ☎ **649010179**
- ▶ Logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **679873132**
- ▶ Pisu konpartituko nuke. ☎ **687323613 (Asif)**
- ▶ Etxea hartuko nuke alokairuan. Premiakoa da. ☎ **627831529**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- ▶ Marradun garajea alokairuan herri erdi-erdian, Santa Ana 2an. ☎ **943743427**
- ▶ Garaje itxia alokatzen da Trenbide kalean. ☎ **943742009/660795301**

## [ AUTOAK ]

- ▶ 2. eskuko kotxe automatikoa erotsiko nuke. ☎ **639390808**

## [ BESTELAKOAK ]

- ▶ 4 llanta, AMG II, Mercedes replika 18 pulgada, neumatikoak Pzero Rosso 245/40 18. Oso egoera onean. 1.200 euro. ☎ **628526697**
- ▶ 2. eskuko izozkailua salgai. Bertikala da, hozkailua modukoa. ☎ **639390808**
- ▶ 2. eskuko ume kotxe kapota, aulkiak eta sakuak salgai. (Bebé confort) ☎ **629132713**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **671476869**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. Papelekin. ☎ **649010179**
- Gizonezkoa eraikuntzan edo pinturan lan egiteko prest. ☎ **677617031**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. ☎ **943741977**
- 19 urteko neska umeak zaintzeko prest. ☎ **943741977**
- Emakumea gaixoak zaintzeko prest, egunez edo gauzez. ☎ **943172896 (Mertxe)**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **638221948**
- LHko klase partikularak eskainiko nituzke uztailean, goizez. ☎ **676753957**
- LH eta DBHko klase partikularak eskainiko nituzke udan. ☎ **943531054**

- Mutila umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **676500959**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **699813826**
- Mutila lanerako prest: txofer, sukaldari laguntzaile, kamarero... ☎ **669768779**
- Neska ordua nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **638221948**
- Emakumea goizez lan egiteko prest. tabeman, sukaldari, garbitzaile, zaintzaile... ☎ **654604798**
- Emakumea tabeman lan egiteko prest, sukaldari, garbitzaile... ☎ **690701118**
- Neska gauzez lan egiteko prest. ☎ **638221948**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu, edo garbiketarako prest. ☎ **667397100**
- Emakumea lanerako prest. Kamarera (esperientzia) edo garbitzaile moduan. ☎ **666032715**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **666771701 (Edileuza)**

- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest. Goizez bakarrik. ☎ **943740367/639520378**
- Emakumea lanerako prest. ☎ **671742142**
- Neska lanerako prest.

### ESKAINITZA

- Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko. ☎ **685750083 (19:00etatik aurrera)**
- Mendaroko kafetegirako sukaldaria behar da. ☎ **943030150**
- Gabi jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943741230**
- Dendarako langilea behar da. 30-45 urtekoa. Esperientzia ehunki dendetan. ☎ **943744457**
- Jatetxerako garbitzailea behar da. ☎ **943127334**
- Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. ☎ **607824892**

- Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943121262**
- Sukaldaria behar da. ☎ **943743196**
- Kamareroa behar da. ☎ **943743196**
- Tabernarako kamarero euskalduna behar da. ☎ **670654921**
- Kamareroa behar da eguneroko lan egiteko. Kontratuarekin. Esperientzia. ☎ **617250429**
- Dendarako langilea behar da, goiz eta arratsaldez, eta larunbatetan. Adorea, gida baimena eta euskara beharrezkoak. Bidali erreferentziak **195 posta kutxatilara**.
- Administrazio laguntzailea behar da lanaldi erdirako Elgoibarren. ☎ **943748566**
- Tabernarako kamareroa behar da, neska edo mutila. Astegunetan, eta asteburuak txandaka. ☎ **943742897**

### ABISUAK

- Urezko erantzuna topatu dut. Judith jartzen du. Umearena dirudi. ☎ **639971977**

BARREN astekarirako


# BANATZAILEAK BEHAR DIRA

16 urtetik gorakoak.

BARREN Astekaria • Nafarroa Plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: Tel.: 943 74 41 12 (Enrique) • E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

## [ZORIONAK]



▶ Aurten txapeliduna izan zara! Zorionak **Maria** zure 8. urtebetetzean. Txikien eta etxekoan partezmuxu handi bat.



▶ Zorionak **Sara** zure 8. urtebetetzean. Muxu handi bat gurasoen eta ahizparen partez.



▶ Zorionak **Paulo** zure 7. urtebetetzean. Aupa txapelidun!



▶ Zorionak **Asier** asteartean 4 urte egin zenituelako. Familiakoan eta bereziki, arreba Oihaneren partez.



▶ Zorionak **Aimar** ekainaren 5ean 2 hilabete egin zenituelako. Aitxixa eta amamaren partez muxu handi bat.



▶ Zorionak gure mutil handiari gaur 5 urte egin dituelako. Muxu pila bat etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Aitana** 2 urte egin dituzulako. Osabaizeba, lehengusu Iker eta Gorka eta familiakoan partez.



▶ Zorionak **Irune eta ama-txol** Asko maite zaituztegu. Familiakoan eta bereziki, aita txoren partez.

▶ Zorionak **Alex** gaur bi urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez.

**ELENA**  
ileapaindegia  
Depilazio Elektrikoa  
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

**Mandiola Egurrak S.L.**  
Domingo Arrizabalaga  
SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA  
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

**SORALUCE**  
GRUPO DANOBAT  
**SORALUCE KOOP. E.ak**  
**MUNTATZAILE MEKANIKOAK**  
**BEHAR DITU**  
Mekanika arloko formazioa (LH II edo Ziklo Formatzaile Teknikoak) Esperientzia izatea kontuan izango da. Lanean berehala hasteko aukera.  
Bidali C.V GG.BB.etako departamentura.  
Helbidea: Osintxu Auzoa z/g. 20570 - BERGARA  
E-mail: [soraluce@soraluce.com](mailto:soraluce@soraluce.com)

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a  
**Idama**  
Maiatzeko irabazlea:  
**MARIVI ZIORRAGA**  
Ekaineko saria:  
**SOLARIUM-BONO BAT**  
+  
**ORRAZKERA BAT**  
+  
**ILERAKO TRATAMENDU BAT**  
Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26



## [ OKINDEGIA ]



10 igandea FOTERO



## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ  
 Etxeberria (Errosario)  
 8 Ibañez  
 9 (\* Goizez Yudego)  
 10 Ibañez  
 11 Bidasolo  
 12 Etxeberria (Santa Ana)  
 13 Fernandez  
 14 Yudego  
 15 Zabaleta

\* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Eimua zonaldean.

**KANPOKO FARMAZIAK**  
**IBÁÑEZ**  
 Rekalde, 1 Soraluze.  
 Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
 Herriko enparantza 4, Garagarza.  
 Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**  
 Kalebarren, 9 Soraluze.  
 Tel: 943 75 13 84



## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**  
 Astegunak: 6:55, 7:15, 7:45, 8:15, 8:35, 9:05, 10:45, 13:45, 14:05, 14:45, 15:45, 18:45, 20:45  
 Larunbatak: 7:05, 7:15, 9:05, 10:45, 11:05, 13:45, 15:05, 18:40, 19:05  
 Igandeak eta jaiegunak: 9:05, 9:45, 13:05, 13:40, 17:05, 18:40, 20:40, 21:05

**DONOSTIA - ELGOIBAR**  
 Astegunak: 6:15, 7:00, 8:00, 9:30, 12:30, 13:00, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:00, 19:30, 20:45, 21:00  
 Larunbatak: 8:00, 12:00, 12:30, 15:00, 16:00, 17:30, 19:30, 20:45, 21:00  
 Igandeak eta jaiegunak: 8:00, 12:00, 12:30, 16:00, 19:30, 20:00, 20:45.  
 PESA: 902 10 12 10

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**  
 Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.  
 Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**  
 Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.  
 Asteburuak eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.  
 EUSKOTREN: 902 543 210

## [ 8 BARIXAKUA ]

19:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA  
 ESKOLAKO KURTSO AMAIERA  
 KONTZERTUA  
 Herriko Antzokian

## [ 9 ZAPATUA ]

10:00 IKASTOLAREN EGUNA  
 Elgoibar Ikastolan.

11:00 ESKOLARTEKO XAKE  
 TXAPELKETA  
 Giza Eskubideen parkean. Euria bada, udaletxeko arkupeetan.  
 Antolatzailea: Elgoibarko Xake Taldea.

16:00 ELGOIBARKO 21. XAKE  
 TXAPELKETA  
 Giza Eskubideen parkean. Euria bada, udaletxeko arkupeetan.  
 Antolatzailea: Elgoibarko Xake Taldea.




## ESKERTZA

2007ko maiatzaren 29an hil zen  
**Basilia Olano Zuazoren** sendiak,  
 bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

2007ko ekainaren 4an hil zen  
**Maria Garate Elorza** Animarteren alargunaren sendiak,  
 bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## [ 10 DOMEKIA ]

**9:30 ERROMESALDIA**  
**ARANTZAZURA**  
 Irteera Txankakuako autobus geltokian.  
 Antolatzailea: Parrokia.

**10:00 ALTZOLAN BARRENA**  
**OINEZ**  
 Ibilbidea: Altzola, Ballegoitxi, Bioin, Altzola. Ondoren luntxa.  
 Antolatzailea: Zubibai Elkartea

**10:00 MENDI IRTEERA**  
**KALAMUARA**  
 Ikastolatik.  
 Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

**12:30 EIBARKO UDAL MUSIKA**  
**BANDAREN KONTZERTUA**  
 11:00etan kalejira.  
 Egitaraua: Olmedo (pasodoblea. R. Domenech), Tambor de granaderos (Bilduma. R. Chapi), El golpe fatal (Mamboa. T. Montoya), La italiana en Argel (obertura. G. Rossini).

## [ 14 EGUENA ]

**20:00 EUSKADIKO ORKESTRA**  
**SINFONIKOAREN KONTZERTUA**  
 Herriko Antzokian

## [ 15 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA EGITASMOA**  
 2 urteik 6ra bitareko haurrentzat eta gurasoentzat.  
 Plaza Handian.  
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

## ZINE

### KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN



«Después de la boda»  
 8, barixakua: 22:15  
 9, zapatua: 19:30/22:15  
 10, domekia: 19:30/22:15  
 11, astelehena: 21:30

**EIBAR, UNZAGA**

«Oceans 13»  
 8, barixakua: 22:15  
 9, zapatua: 17:00/19:30/22:15  
 10, domekia: 17:00/19:30/22:15  
 11, astelehena: 21:30  
 12, martitena: 21:30  
 13, eguaztena: 21:30

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## «Después de la boda»



Zuzendaria: Susanne Bier

Antzezleak: Mads Mikkelsen, Rolf Lassgård.

Jacob-ek (Mads Mikkelsen) kalean bizi diren Indiako haurrei lagunduz pasa du bizitza guztia, eta orain, berak zuzentzen duen umezurtz etxea itxiko duten mehatxua egin diote diru nahikorik ez dagoela-eta. Bat-batean, ezusteko eskaintza jasoko du: negozio gizon daniar bat 4 milioi euro emateko prest dago Jacob Danimarkara joaten baldin bada eta negozio gizonaren alabaren ezkontzan parte hartzen badu. Iragina eta etorkizunaren arteko zubi bihurtuko da ezkontza.

# Atzera hegira



**1982**. urteko erretratu zahar hau **Xabier Eizagirrek** laga digu. Eibarko Unbe futbol zelaietan aterata dago, partidu bat jokatu aurretik. Erretratu honetan azaltzen diren mutiko batzuk, urte asko eman dituzte gerora ere, futbolean jokatzen. Joseba Igartuak esate baterako, iaz utzi zion CD Elgoibar taldean jokatzeari. Argazki honetan agertzen den Ion Agirregomezkorta hilda dago, eta haren lagunek sekula ez dutela ahaztuko esan digute. Gogora ditzagun zein diren Iturri Taberna taldea osatzen zuten mutiko hauek.

Goian, ezkerretik eskumara: **Mariano Lopez, Joseba Retolaza, Asier Irureta, Aitor Ibabe, Jesus Agilar, Aitor Osoro, Asier Arrieta, Joseba Igartua eta Unai Argarate.**

Makurtuta, ezkerretik eskumara: **Antton Iranzo, Abel Gerra, Fernando Astigarraga, Ion Agirregomezkorta (†), Unai Zulaika eta Pedro Etxaniz.**



## ESKERTZA

2007ko maiatzaren 31n, 89 urte zituela hil zen **Rosa Ostolaza Zabaleta** Imanol Ajuria "Elorriko"ren alargunaren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Motorra erostekotan al zabiltza?



Hementxe daukazu **MAPFRE**-ren  
**MOTORRARENTZAKO**  
**ASEGURU BERRIA!!**



**MAPFRE**

San Frantzisko, 40 - Tel: 943 74 05 82 / 943 74 14 04 - Faxa: 943 74 17 07

E-posta: [patxiza@mapfre.com](mailto:patxiza@mapfre.com)

**i**ngeniaritza  
**imh**

**IMH Ingeniaritza Eskola**

Goi-mailako heziketa zikloa  
egin ondoren nahi baduzu...

- ingeniaria izan eta ardura postuetan aritu
- lan esperientzia lortu ikasten ari zaren bitartean
- ikasketak ordaindu lanean irabazitakoarekin
- Boloniako itunean indarrean dagoen titulu ofiziala lortu
- atzerrian praktikak egin

**ate irekiak**

**Ekainaren 16 an**

**Goizeko 11:30 etan**

... zatoz IMH Ingeniaritza eskola  
ezagutzera

*zure txanda!*

Informazioa:

IMH INGENIARITZA ESKOLA  
Azkue Auzoa, 1  
20870 ELGOIBAR, Gipuzkoa  
Tel: 943 744 132  
E-mail: [ingeniaritza@imh.es](mailto:ingeniaritza@imh.es)  
[www.imh.es](http://www.imh.es)




ikasten  
ala lanean?  
*Ikasi eta gainera lan egiten dut.*



FRANZESKO  
**cesi**

Frantziako CESI  
Ingeniari Titulu ofiziala





MARTIN CANO eta IDOIA ALVAREZ

Giza Eskubideen Plaza, 1


Tel.: 943 74 34 40

Mobila: 659 36 87 84

620 85 50 97

E-posta: info@aupasolucion.es

## ZURE EGUNEROKO BIZIMODUAN LAGUNTZEKO GAUDE!



MAKALU



ASAMA



ATLAS

*Zatoz informazio eske, inongo konpromezurik gabe!*

### **GURE PRODUKTUAK:**

#### **MAKALU:**

Mota askotakoak ditugu,  
1500, 2000, 3000, 8000.

#### **ATLAS:**

Plataforma inklinatua  
(bidegune zuzenetarako)

#### **ASAMA:**

Plataforma jasotzaile bertikala.

### **Baltasar Elkartearen sarrera**

ATLAS



MARTIN CANO